




 <https://irakaskuntza.lab.eus/>

 **Araba:** 648735679
heziketabereziaraba@lab.eus
Bizkaia: 666778152 / 666771867
heziketaberezia@lab.eus
heziketabereziabizkaia@lab.eus
Gipuzkoa: 666775703 / 673462639
heziketabereziagipuzkoa@lab.eus
heziketabereziagipuzkoa1@lab.eus

Hitzarmen berriko Lizenzia eta baimenen atala indarrean egongo da bihartik aurrera

Hitzarmena indarrean jartzeko tramitazioak 2 hilabete inguru iraungo du. LABek eskatuta gaur lizenzia eta baimenen atala indarrean jartzeko akordioa sinatu dugu LABek, STEILASEk eta UGTk

Gaur, otsailak 4, ordezkoen araudia negoziatzeko hitzarmenean zehaztutako egutegia betez, Hezkuntza Sailarekin bildu gara. Mahai parekidean, LABetik hitzarmena lehenbailehen indarrean jartzeko prozedimentuak azkartzeko eskatu dugu eta indarrean jarri daitezkeen atalak berehala indarrean jartzeko exijitu. Hau horrela, lizenzia eta baimenen atala indarrean jartzeko akordio proposamen bat ekarri digute gaurkoan.

Bertan, [hitzarmenaren](#) sinatzaileek akordioa sinatu dugu eta beraz, bihartik aurrera indarrean jarriko da atal oso hau. Ordezkoen araudiaren negoziatioari dagokionean, Hezkuntza Sailak sindikatuok egindako ekarpenak aintzat hartuz proposamen bat bidaliko digu eta horren gainean ekarpenak egingo ditugu LABetik. Horrela, gure helburua ordezkoez merezi duten araudia lortzea izango da.

Ondoren, mahai negoziatzailean, hezitzaileon zentroetako atxikipenaren inguruan aritu gara. Berritzeguneak Eragingune bihurtzeko dekretuari buruzko azalpenak eman dizkigute. Dekretua irailaren 1ean indarrean jartzeko asmoa adierazi dute. Langileon atxikipenaren proposamena hau da:

- Hezkuntza Laguntzako Espezialistak eta Zeinu Hizkuntzako Interpretak: Ikastetxeetara
- Okupazio Terapeutak eta Fisioak: Eraginguneetara
- Transkribatzaileak: IBTetara
- Gizarte Langileak: Ordezkaritzetara

LABetik oroitarazi diegu berritzeguneak desagertzera doazen honetan hitzarmenean jasota dagoen bezala, baliabide pertsonalak esleitzeko irizpideak eta ratioak prozesu honetan negoziatu behar ditugula eta hitzarmenean zehazten den jardun erdiko lanpostuak osora pasatzeko plana negoziaketa honen baitan sartzea ezinbestekoa dela. Aldi berean, ibiltaritza irizpideak eta ikastetxeen berresleipena ere zehaztu behar direla argi utzi dugu.

Bestalde, atxikipen berriak ekarriko duen lan zentruak esleitzeko prozesua negoziatu eta adostu behar dela adierazi dugu. Aldi berean, langile ibiltariei eraginguneen sorrerak nola eragingo dien argitzea eskatu dugu.

Hainbatetan adierazi dugun bezala, administrazioaren aurreikuspen falta izugarria dago. Merezimendu lehiaketa berandu burutzen ari da eta honek atxikipenaren prozesua zaildu egiten du.

Gai hau lehenetsunez lantzea adostu dugu. Horrela, proposamen zehatza eta dokumentazioa bidaltzekotan gelditu dira. Ekarpenak egingo ditugu.

LABetik heziketa bereziko kolektibo guztien aitortzan eta lan zamen arintzean lanean tinko jarraituko dugu.